

Patriarkatuak eta LGBTBI+ fobiak sorburu ugari dituzte Ekuatore Ginean: frankismoa, herrialdea kolonia espainiar ohia denez gero; botere publikoa, egungo erregimenak «estatu homofobia» praktikatzen duelako; botere judiziala, heterosexualak ez diren bizitzak arautu eta zigortzen dituelako, eta etnia tradizionalak, besteak beste. Indarkeria gordinenak egosten dira sorburuotan eta emakumeen, lesbianen, gay-en, transen, bisexualen gorputzetan lur hartzen dute. Ez da erraza homosexualitatea ukatzen den herrialde batean LGBTBI+ aktibista izatea. Trifonia Melibea Obono (Afaetom, Evineyong, Ekuatore Ginea, 1982) hala da.

Kazetaria, politologoa, irakaslea, UNEDeko Ikasketa Afro-Hispanikoen Zentroko taldeko ikertzailea, eta idazlea da. “Herencia de Bindendee”, “La bastarda”, “La albina del dinero” eta “Yo no quería ser madre” liburuak zituen emanak duela gutxi arte, eta azken argitalpena ekarri zuen besapean azaroko lehenengo asteburuan Euskal Herrira, Hernanira, Hariak zinemaldia kari: “La hija de las Mitangan”.

«La hija de las Mitangan» eleberria eman berri duzu. Lucia da liburuko protagonista; konta iezaguzu, zein da bera?
Lucia emakume independentista bat da. Ginea, orain 54 urte arte, probintzia espainiarra zen, nolabait esateko. Independentzia lortu genuen eta herrialde bat sortu. Herrialdea eraikitzeko prozesu hori maskulinitzat hartzen da, androzentrikotzat. Emakumeen borroka isildua izan da. Gaur arte, oso gutxi edo



«Afrika beltz osoan pentsatzen da homosexualitatea zurien gauza dela»

TRIFONIA MELIBEA OBONO

KAZETARIA, POLITOLOGOA ETA IKERTZAILEA

LGTBI+ aktibista da Ekuatore Ginean, homosexualitatea zurien «birus» bat dela uste duten herrian, jatorri faxista eta etnikoa duten patriarkatuak arnasten diren lurrian. Euskal Herrian egon da.

Maddi TXINTXURRETA

ia ezer ez da ezagutzen independentziaren alde borroka egin zuten andreen inguruan. Horregatik, Luciak, protagonistak, emakume hauen bizitzak erakusten ditu; prozesu kolonialean, lehenengo gobernu ginearrean eta gaur egungo gobernuaren lehenengo aldian bizitakoak. Independentzia erdiesteko modu desberdinak adierazten ditu berak, zeren, askotan, androzentrismoa indarkeriaren erabileran zentratzen da soilik. Eta emakumeek lan handia egin zuten independentziaren alde, baina isilduta daude egun. Horregatik, liburuaren helburua da berreskuratzea eta biltzea memoria feminista hori.

Gainera, emakumeek independentzia nahi zuten, baina bestelako borrokak ere bazituzten. Sei-zazpi talde etniko daude Ginean eta patriarkalak dira guztiak, nahiz eta batzuetan badiren emakumeen eskubideen konkisten zantzuak. Beraz, independentziaren gaineko beste irakurketa bat eskaintzen digu horrek.

Teodoro Obiangena beste erregimenik ez duzu ezagutu Ekuatore Ginean. Nola azalduko zenuke herrialdeak diktadura honekin bizi duen egoera? Emakumeek modu berezian sufritzen dute?
Modu berezian sufritzen dute, bai. Gineako diktaduraz hitz egiten denean, diktadura

politikoaz hitz egiten da ba-
karrik. Baina aipatzen ez dena
da diktadura politiko horren
oinarria diktadura patriarkala
dela. Ez balira egongo patriar-
katuak legitimatzen dituen
indarkeriak, erregimenak ez
luke zentzurik izango. Masku-
linitate hori da, indarkerien
bidez eraikitzen dena eta fa-
milietan transmititzen dena,
gero botere publikoetara era-
maten dena. Familiak jasan-
beragoak balira, sentibera-
goak, enpatikoagoak, hobeto
heziko balituzte seme eta ala-
bak... herrialdeak hobeto an-
tolatuta egongo lirateke.

**Ekuatore Gineak indepen-
dentzia erdietsi zuenean,
Francisco Macias izan zen
lehen gobernuburua, Obiang
da egungo agintaria, 40 urte
baino gehiago daramatza bo-
terean. Nabaritzen da bi al-
dien arteko aldaketarik?**

Nik ez dut alde handirik ikus-
ten Maciasen eta Obianguen al-
dien artean. Jarraitutasun bat
dagoela ikusten dut. Bereziki
patriarkalak diren erregimen
militarrak dira, eta emaku-
meak mota anitzetako dikta-
duren eraginpean daude. Esta-
tuaren diktadura militarra eta
patriarkatuaren diktadura.

**Frankismotik herentzian jaso
zuen herrialdeak «Alfer eta
gaizkileen legea».**

1980an, egungo presidentea
boterera jaso zuen estatu kol-
pearen ondotik, Kontseilu Mi-
litar Gorenak dekretu bat argi-
taratu zuen, zeinaren arabera
indarrean sartu ziren Espai-
nian 1968a baino lehen zeu-
den legeak. Beraz, ez da soilik
“Alfer eta gaizkileen legea”,
baizik araudi osoa. Honek era-
kusten du gure erregimena fa-
xista dela, juridikoki behin-
tzat, frankista dela.

*«1980an indarrean
sartu ziren
Espainian 1968a
baino lehen zeuden
legeak. Honek
erakusten du gure
erregimena faxista
dela, juridikoki
behintzat, frankista
dela»*



**Zertan eragiten die horrek
LGTBIQ+ kolektiboko herri-
tarrei?**

Hemen [frankismo garaian]
eragiten zien bezala. Eta ema-
kumeei ere bai, hemen beza-
la. Desberdintasun bakarra da
han ez dugula soilik jatorri fa-
xista duen patriarkatua, jato-
rri etnikoa duena ere badau-
kagu. Elkarbizitzan daude.
Espainia iritsi zenean, topatu
zituen gizatalde antolatuak,
eta gizatalde horiek patriar-

kalak ziren. Hori mantendu
egin zen.

**Elizak, erlijioak, zer paper du
horretan guztian?**

Nazionalkatolizismoa da. Eta
eliza etnikoak ere patriarkalak
dira.

**2016an sortu zenuten «So-
mos parte del mundo» taldea.
Nolakoa izan zen sorrera?**

“Somos parte del mundo” ez
zuten sortu ginearrek. Luis

Melgar diplomatiko espainia-
rrak sortu zuen. Elkartearen
sorreraz ari garenean, ez gara
esaten ari lehenago ez zela
ezer existitzen. Auzo, familia,
herri desberdinetan, baziren
LGTBIQ+ pertsonak antolatu-
ta. Existitzen ziren. Baina
noiz antolatzen da lehenen-
goz Ekuatore Ginean jarduera
bat, botere publikoen inplika-
zioarekin, LGTBIQ+ auzia lan-
tzen duena? 2016an. Zergatik
diogu 2016an sortu zela? Ze-

ren LGTBIQ+ auzia estatu auzia da, bizitza delako jokoan dagoena, LGTBIQ+en eskubideak giza eskubideak direlako. Eta ezin dira erdietsi botere publikoen inplikaziorik gabe. Hala izan da mundu osoan, eta Ginea ez da salbuespena izango.

Idea bat egiteko: nolakoa da LGTBQ+ pertsona baten bizitza Ekuatore Ginean?

Bazterrekoa. Maila juridikoan, hiru dira LGTBIQ+ pertsonen bizitzak arautzen dituzten markoak. “Alfer eta gaizkileen legea”, Justizia Militarreko Kodea eta Ordena Publikoko legea. Tradizio etnikoetan, “espetxe” homofoboak aurki ditzakegu. Hala, LGTBIQ+ pertsona batek ez dauka inongo espaziorik. Ez daukagu garatzeko espaziorik, familietan “espetxeratuta” bizi gara, eta espazio publikoetara egiten dugunean, eskoletan, elizetan, kultur zentroetan... lege publikoekin zerikusia duten espetxeak aurkitzen ditugu. Eta, bai, Espainiak “Alfer eta gaizkileen legea” ekarri zuen, baina 54 urte izan ditugu indargabetzeko! Gehiago esango dut, Ginean lege aurreproiektu bat tramitatzen ari dira, “Prostituzioaren eta Homosexualen Eskubideen Lege Proiektu Arautzaila”, eta hau are gogorragoa da. Horregatik, ez dakit Espainiaren gain jarri behar den honen guztiaren ardura.

Trans-en egoera zein da?

Egiaz, Ginean, trans-ak homosexualizat hartzen dira. Indarkeria gehien jasotzen duten pertsonak dira. Pertsona transgenero baten bizi itxaropena 25 eta 30 urte artekoa da.

Nolakoa izan da egoeraren garapena azken urteetan? Hobetu al da?



Argazkiak: Maialen ANDRES | FOKU

Egoerak okerrera egin du ikusgarri egin garen neurrian. Bueno, ez dakit esaten okerrera egin duen edo lehen ere hain gaizki zegoena orain ikusi egiten den. Bi aukeretako bat: okerrera egin du ikusgarritasuna lortu dugulako eta botere publikoak lehen baino gogorrago jokatzen ari direlako, edo ez du okerrera egin, denak berdin segitzen du, baina lehen ikusezina zena orain ikusi egiten da. Ez nuke jakingo esaten zein den erantzun zuzena.

Herritarren jarrera edo pentsaera, oro har, zein da?

Jende gaztearen gehiengoak gurekin bat egiten du, mundu modernoarekin konektatuta dago. Askok aldatu da, orain tolerantetagoak dira dibertsitatearekin. Baina jende heldua ez.

Behin baino gehiagotan esan izan duzu Ekuatore Ginean ukatu egiten dela homose-

«Jende gaztearen gehiengoak gurekin bat egiten du, mundu modernoarekin konektatuta dago. Askok aldatu da, orain tolerantetagoak dira dibertsitatearekin. Baina jende heldua ez»

xualitatea, zurien gauza dela-koan.

Bai. Ginean, Tanzanian, Senegal, Kamerunen, Gabonen... Afrika beltz osoan. Pentsatzen da zurien gauza dela. Kontinente afrikarrean erabiltzen den aitzakia da, botere publikoek ez dutenean arazo bat konpondu nahi. Baina guk ikerketak egin ditugu. Orain dela urte batzuk dokumental bat egin genuen, eta etnia guztietan zeuden LGTBIQ+ komunitateko kideak. Esaten da “ez, hori ez da hemengoa, zuriak ekarri dute, birus bat da”. Baina guk izen-abizenak jaso genituen. Nola esango dute homosexualitatea zuriengandik datorrela izen-abizenak baditugu? Honekin, bilatzen genuen LGTBIQ+ auzia tokikotzat hartzea, argi uztea botere publikoen eginbeharra dela homofobiari konponbidea ematea.

Estatuko homofobiaz hitz egiten duzue.

Noski. ILGAK (Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkarte, ingelesezko sigletan) Estatuko homofobiaz hitz egiten duenean, egiaz, bi gauza ari da esaten: bat, Estatuak dela herritarren giza eskubideak babestut behar dituen lehenengo aktorea; eta bi, babes juridikoa ere Estatuaren eskumena dela. Horregatik, talde etniko batek, edo familia batek, seme edo alabari tratatu txarrak ematen badizkio homosexualak delako, Estatuak esku hartu behar du, bizitza horrek inporta duelako. ILGA ari da esaten, aldi berean, “nazioarteko zuzenbidea existitzen da, zu nazioarteko hitzarmenen parte zara, beraz, zuri dagokizu hau konpontzea”.

Zer zailtasun dituzue Ekuatore Ginean LGTBIQ+ aktibistek?

Bizirik irauteko zailtasunak ditugu. Hori da kezka nagusia.

Aipatu duzu belaunaldi gazteak tolerantetagoak direla, hor kokatzen duzu aldaketarako esperantza?

Bai, eta uste dut “Somos parte del mundo”-ren lorpena dela hori, zeren, modu batera alabestera, erdietsi dugu, gutxienez, gaiaz hitz egin dadin. Jendeak, orain, eztabaidatu dezake, bat egin dezake auzi honekin. Gazteak irekiagoak dira, beraz, bai, badugu esperantza beraiekin.

Badituzue aliantzak herrialdetik kanpo?

Bai, batez ere dibertsitate sexual-afektiboa normalizatu duten herrialde afrikarretan, baina Espainian eta Estatu Batuetan ere bai.